# Xedapen Orokorrak

## JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

**4853**

472/2009 DEKRETUA, abuztuaren 28koa, Justizia eta Herri Administrazio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituena.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatu dituen eta haien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuaren baita ere aurreko horretan aldaketak egiten dituen uztailaren 30eko 20/2009 Dekretuaren bidez Autonomia Erkidegoko Administrazioko sailen egitura berrantolatu egin da eta Administrazioko sailen artean eskumenak banatu egin dira, berriro ere, Jaurlaritzaren legegintzaldi honetarako programa osatzen duten konpromiso programatikoak ahalik eta eraginkortasun handienaz betetzeko.

Maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretu horretako 9. artikuluak baita uztailaren 30eko 20/2009 Dekretuaren laugarren, bosgarren, hamahirugarren, hamalaugarren eta hamabosgarren artikuluek ere, hain zuzen ere, Justizia eta Herri Administrazio Sailari dagozkion egitekoak eta jardun-arloak jasotzen dituzte. Eta 4/2009 Dekretu horren Lehenengo Azken Xedapenean xedatutakoari jarraituz, Sail horren egitura organikoa eta funtzionala finkatzen dira, aipatutako xedapenean ezarritako antolaketa-irizpideei eta aurreikuspenei jarraituz.

Egitura horrek lau sailburuordetza izango ditu: Justizia Sailburuordetza, Herri Administrazio Sailburuordetza, Funtzio Publikoaren Sailburuordetza eta Araubide Juridikoaren Sailburuordetza. Sailburuordetza horiek, beren aldetik, zuzendaritzak izango dituzte, bakoitzari dagozkion arlo bereziak kontuan hartuta.

Justizia Sailburuordetzak egiteko hauek izango ditu: Botere Judizialarekiko eta Justizia Administrazioan jarduten duten beste erakunde eta organoekiko harremanen inguruan Sailak dituen eskumenak betetzea; administrazio horrek ongi jarduteko behar dituen baliabideak jartzea; giza eskubideak babestea eta defenditzea; Justizia Agintaritzak xedatutako neurriak betearaztea, espetxeei buruzko eskumenak gauzatzea, eta notarioak eta Jabetza Erregistroko erregistratzaileak izendatzea.

Herri Administrazio Sailburuordetzak Administrazioa arrazionalizatu, hobetu eta modernizatzeko emandako irizpideak gauzatuko ditu, eta, halaber, helburutzat herritarrekiko harremana duten proiektuei dagozkienak. Hauetaz ere arduratuko da: Administra-

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE JUSTICIA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

**4853**

DECRETO 472/2009, de 28 de agosto, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Justicia y Administración Pública.

En virtud del Decreto 4/2009, de 8 de mayo, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, y del Decreto 20/2009 de 30 de julio, que intoduce modificaciones en el anterior, se ha procedido a la reordenación de la estructura departamental de la Administración de la Comunidad Autónoma y a la nueva asignación competencial entre los Departamentos de la misma para llevar a cabo con la máxima eficacia el conjunto de compromisos programáticos que constituyen el Programa de Gobierno para la presente legislatura.

El artículo 9 del citado Decreto 4/2009, de 8 de mayo, así como los artículos cuarto, quinto, decimotercero, decimocuarto y decimoquinto, del Decreto 20/2009 de 30 de julio, contemplan las funciones y áreas de actuación que corresponden al Departamento de Justicia y Administración Pública. De conformidad con lo previsto en su Disposición Final Primera, el presente Decreto establece la estructura orgánica y funcional de dicho Departamento siguiendo los criterios organizativos y previsiones señalados en la misma.

Dicha estructura se articula en cuatro Viceconsejerías: Justicia, Administración Pública, Función Pública y Régimen Jurídico, las cuales a su vez se estructuran en Direcciones en función de cada una de las materias específicas.

La Viceconsejería de Justicia tiene por objeto fundamental el ejercicio de las competencias departamentales referidas a la atención de las relaciones con el Poder Judicial y demás Instituciones y órganos que actúan en la Administración de Justicia, la provisión de medios para el funcionamiento de la misma, la protección y defensa de los Derechos Humanos, la ejecución de las medidas dispuestas por la Autoridad judicial, las competencias referidas a instituciones y establecimientos penitenciarios y el nombramiento de Notarios y Registradores de la Propiedad.

A la Viceconsejería de Administración Pública se encomienda la determinación concreta de la política sobre la racionalización, mejora y modernización de la Administración y los proyectos que tengan por finalidad la relación con la ciudadanía. Se ocupa, asimismo, de la

zioaren eraikin eta egoitzei buruzko politikaz; normalizazio- eta homologazio-egitekoez; hainbat sailetako eraikin eta zerbitzuen kudeaketaz; artxibo-sistemaz, eta argitaratze-jardueraz. Informazio-sistema, telefonia, azpiegiturak eta sareen zerbitzu edo telekomunikazioen alorrean Autonomia Erkidegoko Administrazioak dituen eskumenen ondorioz sortutako araubide orokorrak zuzentzea eta ikuskatzea ere organo horri dagozkio.

Funtzio Publikoaren Sailburuordetzari dagokio, Autonomia Erkidegoaren eremuan, kalitatezko eta etengabeko bilakaeran egongo diren zerbitzu publiko batzuetatik eratorritako beharrei erantzungo dien giza baliabideen politika planifikatzeko, zuzentzeko eta koordinatzeko ardura bere gain hartzea. Horretarako, langileei buruzko politika prestatu, zuzendu eta gauzatu egiten du eta langileon araubide juridikoaz eta ordainketen araubideaz eta, oro har, langileen ohiko kudeaketaz arduratzen da. Halaber, prestakuntzaren alorreko artezpideak prestatzea, lan-kontratukoen eta funtzionarioen ordezkariekiko negoziazioa eta harremana, arriskuak prebenitzeko zerbitzuen kudeaketa eta laneko baldintzak hobetzeko diren gainerako gizarte-zerbitzuak ere dagozkio.

Araubide Juridikoaren Sailburuordetzan, azkenik, Jaurlaritzaren zerbitzu juridiko nagusiak daude. Zerbitzu juridiko horiek egiteko hauek izango dituzte: barneko araugintza kontrolatzea; legeen garapenaren alorrean jardutea eta epaiketetan Administrazioa ordezkatzea eta defendatzea, testu honetan agertzen diren jardute-eremu batzuei dagozkien salbuespenekin. Sailburuordetza horren barruan, gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko Aholku Batzorde Juridikoa egongo da, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren kide anitzeko aholkularitza-organo gorena. Araubide orokorreko elkarteen, fundazioen eta elkargo profesionalen arloan, babesletza-eginkizunak betetzen ditu, erregistrokoak eta korporatiboak, eta, azkenik, toki-administrazioaren alorreko eskumenak eta euskal herri-administrazioen antolaketaren eta prozeduraren araubidea garatzeko ardura dauka; azken kasu horretan, Administrazioa berritzeko eta hobetzeko emandako jarraibideei egokitzeko ardura, hain zuzen ere.

Azkenik, eta zuzenean sailburuaren mende dagoela, Kabineteak zuzeneko laguntza ematen dio sailburuari, duen karguaren ondorioz dagozkion egitekoak burutzeko; Komunikazio Zuzendaritza, berriz, sailaren irudia eta komunikazioa zabaltzeko zereginez arduratzen da, eta Zerbitzu Zuzendaritza, azkenik, Saileko gainerako organoentzako laguntza-organoa da, sailaren arlo guztiei dagozkien gaietan.

Ondorioz, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuaren proposamenez, Lehendakariak onartuta eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2009ko abuztuaren 28an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

política sobre sedes y edificios administrativos, así como de las tareas de normalización y homologación y de la gestión de los servicios y edificios multidepartamentales, del sistema de archivos y de la actividad editorial. Del mismo modo, los regímenes generales derivados de las competencias de la Administración de la Comunidad Autónoma en materia de sistemas de información, telefonía, infraestructuras y servicios de redes o telecomunicaciones son dirigidos y supervisados por este órgano.

A la Viceconsejería de Función Pública le corresponde asumir la planificación, dirección y coordinación, en el ámbito de la Comunidad Autónoma, de una política de recursos humanos que de respuesta a las necesidades derivadas de unos servicios públicos de calidad y en constante evolución. A estos efectos, elabora, dirige y ejecuta la política de personal y se ocupa de su régimen jurídico y retributivo y, en general, de la gestión ordinaria del personal. A su vez, le compete la elaboración de las directrices en materia de formación, la relación y negociación con los representantes del personal laboral y funcionario y la gestión de los servicios de prevención de riesgos y de otros servicios de carácter social destinados a mejorar las condiciones de trabajo.

En la Viceconsejería de Régimen Jurídico, por último, se encuadran los servicios jurídicos centrales del Gobierno, a los que corresponde el control normativo interno, la actuación en el ámbito del desarrollo legislativo y la representación y defensa en juicio de aquélla, con las salvedades relativas a determinados ámbitos de actuación que en el texto se señalan. Asimismo, queda adscrita en su seno la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, órgano colegiado superior consultivo de las administraciones de la Comunidad Autónoma de Euskadi. En materia de Asociaciones de régimen general, Fundaciones y Colegios Profesionales desempeña las funciones de Protectorado, registrales y corporativas, y, finalmente, se ocupa del desarrollo de las funciones en materia de Administración Local y régimen de la organización y procedimiento de las Administraciones Públicas Vascas, sin perjuicio, en este último caso, de su adecuación a las directrices dictadas en orden a la innovación y mejora de la Administración.

Por último, y dependientes directamente de la Consejera o Consejero, el Gabinete le presta asistencia directa para el ejercicio de las funciones que tiene encomendadas en virtud de su cargo, la Dirección de Comunicación se ocupa de las tareas de difusión de imagen y comunicación departamentales y la Dirección de Servicios se configura como el órgano de apoyo a los restantes órganos del Departamento en materias de naturaleza común a las diversas áreas del mismo.

En su virtud, a propuesta de la Consejera de Justicia y Administración Pública, previa aprobación del Lehendakari, y deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 28 de agosto de 2009,

XEDATU DUT:

I. KAPITULUA
ANTOLAKETA OROKORRA

***1. artikulua.***– Egitekoak, eskumenak eta jardun-arloak.

Justizia eta Herri Administrazio Sailari Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatu zituen eta haien egitekoak eta jardun-arloak finkatu zituen maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuko 9. artikuluak finkatzen dituen egitekoak eta eskumenak dagozkio, Dekretu honetan aurreikusitakoaren arabera.

***2. artikulua.***– Justizia eta Herri Administrazio Sailaren egitura orokorra.

1.– Aurreko artikuluan aipatu diren eskumenak erabiltzeko, honako organo hauek izango ditu Justizia eta Herri Administrazio Sailak:

1.1.– Justizia eta Herri Administrazioko sailburua:

a) Justizia eta Herri Administrazioko sailburuaren kabinetea.

b) Komunikazio Zuzendaritza.

c) Zerbitzu Zuzendaritza.

1.2.– Justizia Sailburuordetza:

a) Justizia Administrazioa Eraberritzeko Zuzendaritza.

b) Bulego Judizial eta Fiskalaren Zuzendaritza.

c) Justizia Zuzendaritza.

d) Giza Eskubideen Zuzendaritza.

1.3.– Herri Administrazio Sailburuordetza:

a) Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritza.

b) Berrikuntzaren eta Administrazio Elektronikoaren Zuzendaritza.

c) Baliabide Orokorren Zuzendaritza.

d) Herritarrei Arreta Emateko Zuzendaritza.

1.4.– Funtzio Publikoaren Sailburuordetza:

a) Funtzio Publikoaren Zuzendaritza.

b) Lan Harremanen Zuzendaritza.

1.5.– Araubide Juridikoaren Sailburuordetza:

a) Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritza.

b) Auzibide Zuzendaritza.

2.– Organo hauek ere, Justizia eta Herri Administrazio Sailari atxikita edo lotuta daude, beren sortze-arauetan ezartzen den moduan:

DISPONGO:

CAPÍTULO I
ORGANIZACIÓN GENERAL

***Artículo 1***.– Funciones, competencias y áreas de actuación.

Al Departamento de Justicia y Administración Pública le corresponden las funciones y áreas de actuación que se determinan en el artículo 9 del Decreto 4/2009, de 8 de mayo, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, de conformidad con lo previsto en el presente Decreto.

***Artículo 2.***– Estructura general del Departamento de Justicia y Administración Pública.

1.– Para el ejercicio de las competencias a que se refiere el artículo anterior, el Departamento de Justicia y Administración Pública se estructura en los siguientes órganos:

1.1.– Consejera o Consejero de Justicia y Administración Pública:

a) Gabinete de la Consejera o Consejero de Justicia y Administración Pública.

b) Dirección de Comunicación.

c) Dirección de Servicios.

1.2.– Viceconsejería de Justicia:

a) Dirección para la Modernización de la Administración de la Justicia.

b) Dirección de la Oficina Judicial y Fiscal.

c) Dirección de Justicia.

d) Dirección de Derechos Humanos.

1.3.– Viceconsejería de Administración Pública:

a) Dirección de Informática y Telecomunicaciones.

b) Dirección de Innovación y Administración Electrónica.

c) Dirección de Recursos Generales.

d) Dirección de Atención Ciudadana.

1.4.– Viceconsejería de Función Pública:

a) Dirección de Función Pública.

b) Dirección de Relaciones Laborales.

1.5.– Viceconsejería de Régimen Jurídico:

a) Dirección de Desarrollo Legislativo y Control Normativo.

b) Dirección de lo Contencioso.

2.– Están así mismo adscritos y/o vinculados al Departamento de Justicia y Administración Pública, en los términos que establecen sus normas de creación, los siguientes órganos:

a) Justizia Administrazioa Informatizatzeko Planaren Jarraipenerako Bitariko Batzordea, urriaren 4ko 383/1994 Dekretuaz arautua.

b) Eusko Jaurlaritzaren eta Euskadira destinatuta dagoen Idazkaritza Judizialaren arteko Lankidetza-Organoa, maiatzaren 27ko 123/1997 Dekretuaz sortua, eta abenduaren 27ko 426/2005 Dekretuaz aldatua.

c) Doako Laguntza Juridikoaren Aholku Kontseilua, uztailaren 30eko 210/1996 Dekretuaz sortua.

d) Doako Laguntza Juridikoaren batzordeak, uztailaren 30eko 210/1996 Dekretuaz sortuak.

e) Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundea, abenduaren 1eko 328/1998 Dekretuaz sortua, eta azaroaren 22ko 394/2005 Dekretuaz aldatua.

f) Justizia Administrazioaren Euskal Behatokia, maiatzaren 8ko 81/2001 Dekretuaz sortua, eta uztailaren 8ko 159/2003 Dekretuaz aldatua.

g) Etxeko Biolentziaren Biktimak Babesteko Agindua Koordinatzeko Zentroak, 2003ko abenduaren 9ko Jaurlaritzaren Kontseiluaren Erabakiaz sortuak, eta Justizia, Lan eta Gizarte sailburuaren 2009ko urtarrilaren 20ko Aginduaz aldatuak.

h) Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioko Dokumentazioaren Balioespen, Hautapen eta Sarbide Batzordea, hain zuzen ere, uztailaren 22ko 174/2003 Dekretuaz eta Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2005eko abenduaren 19ko Aginduaz arautua.

i) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan bere zerbitzuak egin zituzten Langileen Lanbide eta Gozamen Eskubideak aplikatzeko Batzordea, maiatzaren 13ko 1/1986 Legegintzako Dekretuaz, irailaren 19ko 193/1983 Dekretuaz eta otsailaren 11ko 58/1986 Dekretuaz arautua.

j) EAEko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako lanpostuak Balioesteko Batzordea, apirilaren 12ko 80/2005 Dekretuaz arautua.

k) Funtzio Publikoaren Euskal Kontseilua, uztailaren 6ko 6/1989 Legeaz arautua, eta bai haren antolamenduaren eta funtzionamenduaren Erregelamendua ere, 2000ko azaroaren 13ko Aginduaz argitaratua.

l) Fundazioen Babesletzaren Aholku Batzordea, ekainaren 19ko 12/1994 Legearen 36.3 artikuluaz sortua eta ekainaren 19ko 100/2007 Dekretuaren 6. artikulutik eta 8. artikulura bitartean arautua.

3.– Justizia eta Herri Administrazio Sailari atxikita daude:

a) Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (HAEE/IVAP) administrazio-erakunde autonomoa, Funtzio Publikoaren Sailburuordetzaren bidez, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen Lege-Jaurpideari buruzko uztailaren 27ko 16/1983 Legeaz ezarritako moduan.

a) Comisión Mixta de Seguimiento del Plan de Informatización de la Administración de Justicia, regulada en el Decreto 383/1994, de 4 de octubre.

b) Órgano de colaboración entre el Gobierno Vasco y el Secretariado Judicial, creado por Decreto 123/1997, de 27 de mayo, y modificado por Decreto 426/2005, de 27 de diciembre.

c) Consejo Asesor de Asistencia Jurídica Gratuita, creado por Decreto 210/1996, de 30 de julio.

d) Comisiones de Asistencia Jurídica Gratuita, creadas por Decreto 210/1996, de 30 de julio.

e) Instituto Vasco de Medicina Legal, creado por el Decreto 328/1998, de 1 de diciembre, modificado por el Decreto 394/2005, de 22 de noviembre.

f) Observatorio Vasco de la Administración de Justicia, creado por el Decreto 81/2001, de 8 de mayo, modificado por el Decreto 159/2003, de 8 de julio.

g) Centros de Coordinación de la Orden de Protección de Víctimas de Violencia Doméstica, creados por Acuerdo de Consejo de Gobierno de 9 de diciembre de 2003, modificado por Orden del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social de 20 de enero de 2009.

h) Comisión de Valoración, Selección y Acceso de la Documentación de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi, regulada por el Decreto 174/2003, de 22 de julio, y la Orden de 19 de diciembre de 2005, de la Consejera de Hacienda y Administración Pública.

i) Comisión para la aplicación de los derechos profesionales y pasivos del personal que prestó servicios a la Comunidad Autónoma del País Vasco, regulada por el Decreto Legislativo 1/1986, de 13 de mayo, el Decreto 193/1983, de 19 de septiembre, y el Decreto 58/1986, de 11 de febrero.

j) Comité de Valoración de puestos de trabajo de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus Organismos Autónomos, regulado por el Decreto 80/2005, de 12 de abril.

k) Consejo Vasco de la Función Pública, regulado por la Ley 6/1989, de 6 de julio, y su Reglamento de organización y funcionamiento, publicado por la Orden de 13 de noviembre de 2000.

l) Comisión Asesora del Protectorado de Fundaciones, creada en el artículo 36.3 de la Ley 12/1994, de 17 de junio y regulada en los artículos 6 a 8 del Decreto 100/2007, de 19 de junio.

3.– Están adscritos al Departamento de Justicia y Administración Pública:

a) El organismo autónomo administrativo Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea / Instituto Vasco de la Administración Pública (HAEE/IVAP), a través de la Viceconsejería de Función Pública, en los términos establecidos por la Ley 16/1983, de 27 de julio, sobre Régimen Jurídico del Instituto Vasco de Administración Pública.

b) Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartea (EJIE) baltzu publikoa, otsailaren 1eko 60/1982 Dekretuaz sortua, Herri Administrazio Sailburuordetzaren bidez.

c) Itelazpi SA baltzu publikoa, zeina, Herri Administrazio Sailburuordetzaren bitartez eta irailaren 23ko 215/2003 Dekretuaz baimendu baitzen.

4.– Justizia eta Herri Administrazioko sailburua buru dela, Zuzendaritza Kontseilua ere egongo da, Sailaren politika orokorra planifikatzen eta koordinatzen laguntzeko. Honako hauek osatuko dute Kontseilua: sailburuordeek eta Kabineteko, Komunikazio Zuzendaritzako eta Zerbitzu Zuzendaritzako zuzendariek, bai eta, aztertu beharreko gaia kontuan hartuta, sailburuak izenda ditzan pertsonek ere.

II. KAPITULUA
SAILBURUA ETA SAILEKO GOI-KARGUDUNAK

***4. artikulua.***– Justizia eta Herri Administrazioko sailburua:

1.– Honako egiteko hauek dagozkio Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari: Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26. eta 28. artikuluetan aipatzen diren eskumenak eta indarrean dauden xedapenek bere egiteko eta jardun-arloetan ematen dizkioten guztiak. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzeari eta jardun-arloak finkatzeari buruzko maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuaren 9. artikuluak xedatzen duenaren ondorioz hartu zituen egiteko horiek.

2.– Honako hauek ere badagozkio Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari:

a) Sailaren organo eta jarduera guztiak programatzea, bultzatzea, gidatzea, koordinatzea eta kontrolatzea.

b) Behin-behineko langileei gordetako lanpostuak hornitzea.

c) Kontratazio-organo moduan jardutea, kontratuen zenbatetsitako balioa milioi 1 eurotik gorakoa bada.

d) Sailari indarrean dagoen araudiak honako arlo hauetan egozten dizkion eskumenak erabiltzea: funtzio publikoa, ondarea, kudeaketa ekonomiko-aurrekontukoa eta, oro har, Dekretu honetako 1. artikuluan aipatutako gaiekin lotutakoak, baldin eta Dekretu horrek haren egitura organikoa osatzen duten beste organo batzuei egozten ez badizkie.

***5. artikulua.***– Justizia eta Herri Administrazio Saileko sailburuordeak.

b) La sociedad pública Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartea, S.A. / Sociedad Informática del Gobierno Vasco (EJIE), constituida mediante el Decreto 60/1982, de 1 de febrero, a través de la Viceconsejería de Administración Pública.

c) La sociedad pública Itelazpi, S.A., cuya creación fue autorizada mediante el Decreto 215/2003, de 23 de septiembre, a través de la Viceconsejería de Administración Pública.

4.– Presidido por la Consejera o Consejero de Justicia y Administración Pública, existe un Consejo de Dirección con la función de asistirla en la planificación y coordinación de la política general del Departamento. Formarán parte de este Consejo las Viceconsejeras, los Viceconsejeros y las Directoras o Directores del Gabinete, de Comunicación y de Servicios, así como aquellas personas del Departamento que determine la Consejera o Consejero en función de los asuntos a tratar.

CAPÍTULO II
LA CONSEJERA O CONSEJERO Y LOS ALTOS CARGOS DEL DEPARTAMENTO

***Artículo 4.***– Consejera o Consejero de Justicia y Administración Pública.

1.– Corresponde a la Consejera o Consejero de Justicia y Administración Pública el ejercicio de las competencias establecidas en los artículos 26 y 28 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, sobre «Ley de Gobierno» y cuantas le atribuya la legislación vigente en el ámbito de las funciones y áreas de actuación asumidas por el Departamento en virtud de lo dispuesto en el artículo 9 del Decreto 4/2009, de 8 de mayo, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos.

2.– Corresponde, asimismo, a la Consejera o Consejero de Justicia y Administración Pública:

a) Programar, impulsar, dirigir, coordinar y controlar a todos los órganos y actividades del Departamento.

b) Proveer los puestos de trabajo reservados a personal eventual.

c) Actuar como órgano de contratación en relación con aquellos contratos cuyo valor estimado supere 1 millón de euros.

d) Ejercer las competencias que la normativa vigente atribuye al Departamento en materia de función pública, patrimonio, gestión económico-presupuestaria y, en general, las relacionadas con las materias señaladas en el artículo 1 de este Decreto, que no estén atribuidas por este Decreto a otros órganos integrantes de su estructura orgánica.

***Artículo 5.***– Viceconsejeras y Viceconsejeros del Departamento de Justicia y Administración Pública.

Sailburuaren artezko eta hierarkiazko mendetasunez, honako egiteko hauek dagozkie oro har, Justizia eta Herri Administrazio Saileko sailburuordeei:

a) Saila ordezkatzea, sailburuak eskuordetuta.

b) Sailburuordetzako eta haren mende dauden zuzendaritzetako organo guztiak eta jarduketa guztiak koordinatzea, sustatzea, programatzea eta gainbegiratzea; halaber, mendeko zerbitzu eta organoen antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko jarraibideak eta zerbitzu-aginduak ematea.

c) Jardute-politikak eta xedapen-proiektuak prestatzea eta sailburuari proposatzea; halaber, aginduta dauzkan egitekoen eremuan, berari laguntza ematea.

d) Sailburuordetzaren mendeko organoen erabakien aurka jarritako errekurtsoak ebaztea.

e) Saileko langileak euskalduntzeko eta hizkuntza-normalizaziorako prozesua bultzatzea, eta beraren eskumeneko alorretan euskararen erabilera sustatzea, herritarrei euskaraz erantzun ahal izateko.

f) Sailaren kontratazio-organo moduan jardutea, kontratuen helburuak Sailburuordetza bakoitzaren jarduerekin zerikusia badu, eta kontratu horien hasierako aurrekontua milioi 1 eurotik gorakoa ez bada.

g) Indarrean dagoen legeriak ematen dizkien egiteko guztiak; halaber, guztientzat izan daitezkeenak, orokortasunez sailburuordeei izendatutakoak direlako.

***6. artikulua.–*** Justizia eta Herri Administrazio Saileko zuzendariak.

Zuzendariek kasuan kasuko sailburuordearen artezko eta hierarkiazko mendetasuna izango dute, Kabineteko, Komunikazio eta Zerbitzu Zuzendaritzakoek izan ezik, haiek sailburuarena izango baitute. Oro har, egiteko hauek dagozkie guztiei:

a) Sailburuaren eta sailburuordeen erabakiak gauzatzea eta eskuordetzen zaizkien eskumenak erabiltzea.

b) Saila ordezkatzea, sailburuak eskuordetuta.

c) Zuzendaritzaren jardunak programatzea, bultzatzea, gidatzea, koordinatzea eta kontrolatzea.

d) Zuzendaritzako barne-zerbitzuak eta lan-sistemak antolatzea, organo eskudunek ezarritako arauekin bat eginik, eta Zerbitzu Zuzendaritzari esleitutako eskumen orokorrak gorabehera.

A las Viceconsejeras y los Viceconsejeros del Departamento de Justicia y Administración Pública, bajo la dependencia directa y jerárquica de la Consejera o Consejero les corresponde, con carácter general, el ejercicio de las siguientes atribuciones:

a) Representar del Departamento por delegación de la Consejera o Consejero.

b) Coordinar, impulsar, programar y supervisar a todos los órganos y actividades de la Viceconsejería y de las Direcciones que dependan de la misma, así como emitir instrucciones y órdenes de servicio sobre la organización y funcionamiento de los servicios y órganos dependientes.

c) Elaboración y proponer a la Consejera o Consejero políticas de actuación y proyectos de disposiciones así como la asistencia técnica a la misma, en el ámbito de las funciones que tenga encomendadas.

d) Resolver los recursos que se interpongan contra resoluciones de los órganos que dependan de la Viceconsejería.

e) Impulsar el proceso de euskaldunización y normalización lingüística del personal al servicio del Departamento, así como fomentar el uso del euskera en los ámbitos de su competencia a fin de posibilitar a la ciudadanía el desenvolvimiento en dicha lengua.

f) Actuar como órgano de contratación del Departamento en relación con aquellos contratos cuyo objeto esté relacionado con las actividades de cada Viceconsejería y cuyo valor estimado no supere 1 millón de euros.

g) Las que les atribuya expresamente el ordenamiento jurídico vigente y las que tengan el carácter de comunes por venir atribuidas de forma general a los/as Viceconsejeros/as.

***Artículo 6.–*** Directoras y Directores del Departamento de Justicia y Administración Pública.

Las Directoras y los Directores tendrán dependencia directa y jerárquica de la Viceconsejera o el Viceconsejero correspondiente, excepto las del Gabinete, de Comunicación y de Servicios que la tendrán de la Consejera o Consejero. A todas y a todos les corresponde con carácter general, el ejercicio de las siguientes funciones:

a) Ejecutar las resoluciones de la Consejera o Consejero y las Viceconsejeras y Viceconsejeros y ejercitar las atribuciones que les sean delegadas.

b) Representar al Departamento por delegación de la Consejera o Consejero.

c) Programar, impulsar, dirigir, coordinar y controlar todas las actividades de la Dirección.

d) Organizar los servicios internos y los sistemas de trabajo de la Dirección, de acuerdo con las normas establecidas por los órganos competentes y sin perjuicio de las competencias generales atribuidas a la Dirección de Servicios.

e) Proposamenak egitea, beren eskumeneko gaietan, goi-organoei.

f) Hitzarmen- edo erabaki-proposamenei eta arauzko xedapenen proiektuei buruzko azterlana eta, beharrezko bada, irizpen tekniko-juridikoa.

g) Errekurtsoak ebaztea, indarrean dagoen legerian agindutako kasuetan.

h) Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioak Interneten duen presentziaren ereduari buruzko ekainaren 8ko 108/2004 Dekretuko 34. artikuluan bere zuzendaritzari egotzitako gaietan esleitutako egitekoak.

i) Informazio- eta telekomunikazio-sistemen arloan Informazio eta Telekomunikazio Sistemen Egitekoak eta Kudeaketa-Modalitateen Planifikazioa, Eraketa eta Banaketa arautu zituen 35/1997 Dekretuaren a), b), c) eta f) idatz-zatien arabera Justizia eta Herri Administrazio Sailari dagozkion egitekoak.

j) Indarrean dagoen legeriak egozten dizkien gainontzeko egitekoak eta Jaurlaritzako zuzendariei oro har dagozkienak.

III. KAPITULUA
KABINETEKO, KOMUNIKAZIO ETA ZERBITZU ZUZENDARITZAK

***7. artikulua.***– Justizia eta Herri Administrazioko sailburuaren Kabinetea.

Sailburuak, bere egitekoak burutzeko, Kabinete baten laguntza edukiko du, Zuzendaritzaren maila organikokoa, eta hark, Dekretu honetako 6. artikuluan oro har egozten zaizkion egitekoez gain, honako hauek garatu ditu:

a) Sailari egotzitako eskumenak erabiltzeko beharrezko diren laguntza eta aholkularitza ematea sailburuari; halaber, eskumen horiei buruzko jardun-irizpideak eta -planak ezartzeko beharrezko direnak.

b) Saileko sailburuordetzen arteko koordinazio egokia zaintzea; halaber, eta hori organo agintedunen bidez, Sailak Eusko Legebiltzarrarekin eta Arartekoarekin dituen harremanak bideratzea.

c) Sailarenak diren gaiak, Jaurlaritzaren Kontseiluaren eta Jaurlaritzako Batzordeen iritzipean jarri behar direnak, bidaltzeko izapideak egitea.

d) Sailaren programa eta jarduna garatzeko eta betetzeko arloek burutu beharreko jarduerak planifikatzea, programatzea eta ebaluatzeko teknikak eta metodoak proposatzea. Horretarako, sailburuari dagozkion jarraipen- eta koordinazio-eginkizunak errazteko beharrezko laguntza eta agiriak eskatu ahal izango dizkie arloei.

e) Realizar propuestas, en materia de su competencia, a los órganos superiores.

f) Estudio y, en su caso, informe técnico-jurídico de los Proyectos de disposiciones normativas, Propuestas de Acuerdo o Convenios.

g) Resolver los recursos en los supuestos previstos en la normativa vigente.

h) Las funciones asignadas al Departamento en el artículo 34 del Decreto 108/2004, de 8 de junio, del modelo de presencia de la Administración pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi en Internet, en las materias atribuidas a su dirección.

i) Las funciones que en materia de sistemas de información y telecomunicaciones corresponden al Departamento de Justicia y Administración Pública en virtud de las letras a), b), c) y f) del artículo 7 del Decreto 35/1997, por el que se regula la planificación, organización, distribución de funciones y modalidades de gestión en materia de sistemas de información y telecomunicaciones.

j) Las que les atribuya expresamente el ordenamiento jurídico vigente o tengan el carácter de comunes por venir atribuidas con carácter general a las Directoras o los Directores del Gobierno.

CAPÍTULO III
LAS DIRECCIONES DEL GABINETE, DE COMUNICACIÓN Y DE SERVICIOS

***Artículo 7.***– Gabinete de la Consejera o Consejero de Justicia y Administración Pública.

Para el ejercicio de sus funciones, la Consejera o Consejero contará con la asistencia del Gabinete, con nivel orgánico de Dirección, que desarrollará, además de las funciones que con carácter general le atribuye el artículo 6 del presente Decreto, las siguientes:

a) Prestar a la Consejera o Consejero la asistencia y asesoramiento necesario para la ejecución de las competencias atribuidas al Departamento, así como para el establecimiento de los criterios y planes de actuación relativas a dichas competencias.

b) Velar por la adecuada coordinación entre las Viceconsejerías del Departamento así como, y ello a través de los órganos competentes, canalizar las relaciones del Departamento con el Parlamento Vasco y el Ararteko.

c) Tramitar la remisión de los asuntos del Departamento que hayan de ser sometidos al Consejo de Gobierno y a las Comisiones del Gobierno.

d) Proponer la aplicación de técnicas y métodos que permitan la planificación, programación y evaluación de las diferentes áreas encaminadas al desarrollo y ejecución del programa y de la acción del Departamento. A estos efectos podrá recabar de las distintas áreas la asistencia y documentación precisa para facilitar las funciones de seguimiento y coordinación que corresponden a la consejera o consejero.

e) Sailaren plan estrategikoen eta plan horiei dagozkien jarraipen-txostenen prestaketan laguntzea, Saileko sailburuordetzekin koordinatuta.

f) Sailaren eginbeharrekoetan eragina duten gaien inguruko informazio egokia biltzea, aztertzea eta aurkeztea. Horretarako, gaiarekin zerikusia duten Saileko beste organo eskudunekin batera lan egingo du.

g) Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legean eta Eusko Jaurlaritzak onartutako Berdintasunerako Planean aurreikusitako neurriak gauzatzearren, Saileko zuzendaritzen eta Administrazio Instituzionaleko erakundeen eta hari atxikitako organoen lana zaintzea.

h) Europar Batasunaren Erakundeen inguruan Sailari dagozkion jardunen jarraipena egitea.

***8. artikulua.***– Komunikazio Zuzendaritza.

Dekretu honetako 6. artikuluan egozten zaizkion egiteko orokorrez gain, honako hauek dagozkio Komunikazio Zuzendaritzari:

a) Sailaren jardunen informazio- eta publizitate-estaldura egokia ziurtatzea.

b) Komunikabideekiko harremanak ezartzea eta artatzea.

c) Sailaren komunikazio-ekintzak egitea, sailetako organoei laguntzeko atal gisa jardunda.

***9. artikulua.***– Zerbitzu Zuzendaritza.

1.– Dekretu honetako 6. artikuluan oro har Zerbitzu Zuzendaritzari egozten zaizkion egitekoez gain, honako hauek dagozkio zuzendaritza honi:

a) Sailari atxikitako giza baliabideak kudeatzea, Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 10. artikuluak gai horri buruz egozten dizkion eskumenak, behin behineko langileei eta Justizia Administrazioko langileei buruzkoak salbu, baliatuz.

b) Langileen prestakuntza-planak eta programak koordinatzea eta kudeatzea.

c) Sailaren aurrekontuei buruzko aurreproiektua koordinatzea eta lantzea, bai eta aurrekontu-betearazpenaren segimendua egitea, gastuen programei buruzko ebaluazioa egitea eta aurrekontuetan egon daitezen aldaketen izapideak burutzea ere.

d) Zerbitzu eta lan-moldeen barne-antolaketari, arrazionalizazioari eta informatizazioari buruzko proposamenak egitea; halaber, eta zerbitzu publikoetako berrikuntzaren eta kalitate-hobekuntzaren arloan eskudun diren organoek emandako ekimenak eta artezpideak sailetako organoak nola betetzen ari diren jarraitzea.

e) Colaborar en la elaboración de los Planes Estratégicos del departamento y de los informes de seguimiento correspondientes a los mismos, en coordinación con las Viceconsejerías del Departamento.

f) Recopilar, analizar y trasladar la información pertinente sobre los asuntos que tengan incidencia en el quehacer departamental, requiriendo para ello la colaboración de otros Órganos de Departamento competentes por razón de la materia.

g) Velar con las distintas Direcciones del Departamento, y con las entidades de la Administración Institucional y órganos adscritos al mismo, para la ejecución de las medidas previstas en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres y en el plan para la igualdad aprobado por el Gobierno Vasco.

h) Efectuar el seguimiento de las actuaciones que al Departamento correspondan en relación con las Instituciones de la Unión Europea.

***Artículo 8.***– Dirección de Comunicación.

A la Dirección de Comunicación le corresponde, además de las funciones que con carácter general le atribuye el artículo 6 del presente Decreto, el ejercicio de las siguientes:

a) Garantizar la adecuada cobertura informativa y publicitaria de las acciones del Departamento.

b) Establecer y atender las relaciones con los medios de comunicación.

c) Realizar las acciones de comunicación del Departamento actuando como unidad de apoyo a los órganos departamentales.

***Artículo 9.***– Dirección de Servicios.

1.– A la Dirección de Servicios le corresponde, además de las funciones que con carácter general le atribuye el artículo 6 del presente Decreto, el ejercicio de las siguientes:

a) Gestionar los recursos humanos adscritos al Departamento, ejerciendo las competencias que al respecto atribuye el artículo 10 de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca, salvo las referidas al personal eventual y al personal de la administración de Justicia.

b) Coordinar y gestionar los planes y programas de formación del personal.

c) Coordinar y elaborar el Anteproyecto de Presupuestos del Departamento, así como el seguimiento de la ejecución presupuestaria, la evaluación de los programas de gasto y la tramitación de modificaciones presupuestarias.

d) Elaborar propuestas sobre la organización interna, racionalización e informatización de los servicios y métodos de trabajo, así como efectuar el seguimiento, en el ámbito del Departamento de Justicia y Administración Pública, de la ejecución por los órganos departamentales de las iniciativas y directrices dictadas por los órganos competentes en materia de innovación y mejora de la calidad en los servicios públicos.

e) Sailari dagozkion gaietan, irizpen teknikoak prestatzea eta, oro har, laguntza juridikoa ematea, Saileko organoek proposatzen dutenean; halaber, eskatzen zaion laguntza ematea xedapen orokorrak prestatzeko eta administrazio-egintzak emateko prozeduretan.

f) Aldizkari ofizialetan argitaratu beharreko gaiak izapidetzea.

g) Sailari dagozkion informatika-zerbitzuen segimendua egitea eta, behar izanez gero, zerbitzuok kudeatzea; halaber, datu pertsonalen babesari buruzko araudia betetzen ari dela ziurtatzea.

h) Saileko hizkuntza-normalizazioa, Justizia Administrazioari buruzkoa izan ezik, eta euskararen ezarpen dokumentala, bultzatzea, bai eta eskatzen diren itzulpen-zerbitzuak egitea ere.

i) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren argitalpenak arautzen dituen apirilaren 7ko 67/1998 Dekretuaren 10. artikuluan Sailari argitalpen arloan egotzitako eginkizunak betetzea.

j) Informazio- eta telekomunikazio-sistemen arloan Informazio eta Telekomunikazio Sistemen Egitekoak eta Kudeaketa-Modalitateen Planifikazioa, Eraketa eta Banaketa arautu zituen 35/1997 Dekretuaren 7. artikuluko d) eta e) idatz-zatien arabera Justizia eta Herri Administrazio Sailari dagozkion egitekoak.

2.– Justizia eta Herri Administrazio Sailaren kontratazio-organoari dagozkion ahalmenak erabiliko ditu Zerbitzu Zuzendaritzak, milioi 1etik gorakoak ez diren ondasun eta zerbitzuei dagokienez; baldin eta, ondasun eta zerbitzuon izaera erkidea eta Sailaren erabilera orokortua direla eta, gutxienez Saileko bi sailburuordetzari eragiten badiete, bai eta Kabineteko Zuzendaritzari eta Zerbitzu Zuzendaritzari berari egotzitako eginkizunak betetzeko beharrezko direnei buruz ere.

## IV. KAPITULUA
## JUSTIZIA SAILBURUORDETZA

***10. artikulua.***– Justizia Sailburuordetza.

1.– Dekretu honen 5. artikuluan oro har egozten zaizkion egitekoez gain, honako hauek dagozkio Justizia Sailburuordetzari:

a) Botere Judizial, Justizia Ministerio eta Justizia Administrazioan diharduten gainerako instituzio eta organoekiko, notarioen, erregistratzaileen, abokatuen, prokuradoreen, epaileen, magistratuen, fiskalen eta idazkari judizialen korporazio eta ordezkaritza-antolakundeekiko harremanez arduratzea.

b) Justizia Administrazioaren funtzionamendurako giza baliabideak eta baliabide materialak jartzea oro har, eta haren antolaketa eta jarduerak planifikatzea.

e) Elaboración de dictámenes técnicos y asesoramiento jurídico en general en materias propias del Departamento, a propuesta de los órganos del mismo, así como prestar el apoyo que le sea requerido en los procedimientos de elaboración de disposiciones de carácter general y de producción de actos administrativos.

f) Tramitar los asuntos que deban ser objeto de publicación en los Boletines oficiales.

g) Efectuar el seguimiento y, en su caso, gestionar los servicios informáticos propios del Departamento, así como asegurar el cumplimiento de la normativa referente a la protección de datos de carácter personal.

d) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren erakunde autonomoetan lanpostuak modu egokian hornitzeko behar diren lanabesak kudeatzea.

e) Osakidetzan, Ertzaintzan, unibertsitatez besteko kidegoetan eta Segurtasun Administrazioko laguntza-zerbitzuetan sartzeko hautaproben deialdiko oinarri-arauak aginduz irizpentzea. Horrelakoetan, beren beregi eta espresuki irizpendu beharko da hautaprobako alderdi tekniko eta metodologikoei buruz; eta horretarako, deialdia egiten duenak, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen laguntza eska dezake.

f) Funtzio publikoaren arloko irizpenak lantzea, Autonomia Erkidegoko Administrazioko sailek edo haren erakunde autonomoek hala eskatutakoan.

g) Langileen prestakuntza-politika diseinatzea eta gauzatzea.

h) Otsailaren 23ko 129/1999 Dekretuz arautu zen Jaurlaritzako kideen, Administrazioko goi-kargudunen eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoetako eta sozietate publikoetako zuzendaritza-taldekideen jardueren eta ondarezko eskubide-ondasunen Erregistroa kudeatzea.

i) Langileei eragiten dieten administrazio eta lan arloko gorabeherak izapidetzeko eta ebazteko jarraibideak ematea, bai eta gorabehera horiek ebaztea ere, baldin eta Administrazio Orokorreko sailei edo haien erakunde autonomoei espresuki egotzita ez badaude.

***22. artikulua.***– Lan Harremanen Zuzendaritza.

Lan Harremanen Zuzendaritzak, Dekretu honetako 6. artikuluan aipatzen direnez gain, honako egiteko hauek izango ditu:

a) Funtzio Publikoaren Sailburuordetza aholkatzea, Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Instituzionalaren eremuko negoziazio kolektiboaren edukiak eta mugak prestatzeaz eta proposatzeaz.

b) Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari eta Instituzionalari dagokion ordezkaritza egitea sindikatuekin eta langileen beste ordezkapen-organo batzuekin egiten diren elkarrizketetan eta negoziaketetan.

c) Langileen ordezkariekin lortutako edo izenpetutako akordio edo hitzarmenen ondorioz sortutako organo edo lantaldeetan Sailaren ordezkotza egitea, baldin eta akordioan espresuki beste organo bati egotzi ez bazaio egiteko hori.

d) Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta Instituzionaleko langileen ordezkariekin lortu edo izenpetu beharreko akordio edo hitzarmenak irizpentzea, izenpetu baino lehen eta derrigorrez.

d) Gestionar los instrumentos para una adecuada provisión de los puestos de trabajo en la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y sus Organismos Autónomos.

e) Informar con carácter preceptivo las bases de convocatoria de las pruebas selectivas para el acceso al Ente Público Osakidetza-Servicio vasco de salud, a la Ertzaintza, a los Cuerpos docentes no universitarios y a los servicios auxiliares de la Administración de Seguridad. En dicho supuesto deberá informarse expresamente sobre los aspectos técnicos y metodológicos del proceso selectivo, para lo cual el órgano emisor podrá recabar la colaboración del Instituto Vasco de Administración Pública.

f) Elaborar aquellos dictámenes que, en materia de función pública, le sean requeridos por los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma o sus Organismos Autónomos.

g) Diseñar y ejecutar la política de formación del personal.

h) Gestionar el Registro de Actividades y de Derechos y Bienes Patrimoniales de los miembros del Gobierno, altos cargos de la Administración y los directivos de los entes públicos de derecho privado y de las sociedades públicas, regulado por el Derecho 129/1999, de 23 de febrero.

i) Dictar las instrucciones para la tramitación y resolución de las incidencias administrativas o laborales que afecten al personal, así como resolver las mismas, cuando no se encuentren expresamente atribuidas a los Departamentos de la Administración General o a sus Organismos Autónomos.

***Artículo 22.***– Dirección de Relaciones Laborales.

La Dirección de Relaciones Laborales ejercerá, además de las funciones señaladas en el artículo 6 del presente Decreto, las siguientes:

a) Asistir a la Viceconsejería de Función Pública sobre el establecimiento y propuesta de los contenidos y límites de la negociación colectiva en al ámbito de la Administración General e Institucional de la Comunidad Autónoma.

b) Ejercer la representación que corresponda a la Administración General e Institucional de la Comunidad Autónoma en las conversaciones y negociaciones que se establezcan con sindicatos y órganos de representación de personal.

c) Representar al Departamento en aquellos órganos o comisiones que deriven de Acuerdos o Convenios alcanzados o suscritos con la representación del personal, salvo que en éstos expresamente se hubiera atribuido a otro órgano.

d) Informar, con carácter previo y preceptivo, los Acuerdos o Convenios que hubieran de alcanzarse o suscribirse con la representación del personal en la Administración General e Institucional de la Comunidad Autónoma.

e) Sailei, erakunde autonomoei, zuzenbide pribatuko erakunde publikoei eta baltzu publikoei aholku ematea langileen ordezkariekin egin beharreko negoziaketetan.

f) Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko langileen ordezkariekin izenpetutako akordio eta hitzarmenen indarraldiari eta aplikazioari buruz sortzen diren administrazio eta lan arloko gorabeherak irizpentzea eta ebaztea, eta aplikazio erkideko artezpideak ezartzea.

g) Langileen bertaratzeari buruzko kontroleko aplikazio erkideko irizpideak ezartzea, eta aplikazio informatikoa administratzea.

h) Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta Instituzionalak borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakunde edo sistemetan duen parte-hartzea kudeatzea eta koordinatzea, bazkide edo ekarpen-egile gisa esku hartzen badu.

i) Langileei gizarte-laguntzak ematea eta haien kudeaketa burutzea. Indarrean dauden legeen arabera maileguak izapidetzea eta haiei ebazpena ematea sailei eta erakunde autonomoei dagokienez, eta zein artezpideri jarraitu beharko dioten finkatzea.

j) Lan-harremanei buruzko guztiaren segimendua egitea eta ebaluatzea, laneko baldintzetan, eta giza baliabideen antolaketan eta egokitzapenean, zerbitzu publikoen kalitate handiko eredu baten barruan.

k) Funtzio Publikoaren Sailburuordetzak Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen eremuan hartutako laneko segurtasunaren eta osasunaren arloko aplikazio erkideko irizpideak betearaztea.

l) Laneko segurtasunaren eta osasunaren arloko kultura egokia sustatzea, bai eta prebentzio- eta zuzenketa-neurriak diseinatzea ere, eta organo eskudunek betearaztea bultzatzea, koordinazio-irizpideak ezarrita, beharrezko balitz.

m) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen Prebentzio Zerbitzua kudeatzea.

n) Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legean aurreikusitako pentsioei dagokienez espedienteak eta emate-proposamenak izapidetzea.

VII. KAPITULUA
ARAUBIDE JURIDIKOAREN SAILBURUORDETZA

***23. artikulua.***– Araubide Juridikoaren Sailburuordetza.

1.– Dekretu honen 5. artikuluan oro har egozten zaizkion egitekoez gain, honako hauek dagozkio Araubide Juridikoaren Sailburuordetzari:

a) Zerbitzu Juridiko Nagusia den aldetik, Jaurlaritzaren organoa da, eta berari dagokio, bai Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Ins-

e) Asistir a los Departamentos, Organismos Autónomos y Entes Públicos de Derecho Privado y Sociedades Públicas y participar, en su caso, en las negociaciones con la representación del personal.

f) Informar y resolver las incidencias administrativas y laborales que se susciten sobre la vigencia y aplicación de los Acuerdos y Convenios suscritos con la representación de personal en la Administración General de la Comunidad Autónoma, estableciendo directrices de común aplicación.

g) Establecer los criterios de común aplicación en el control de presencia del personal y administrar su aplicación informática.

h) Gestionar y coordinar la participación de la Administración General e Institucional de la Comunidad Autónoma en las entidades o sistemas de previsión social voluntaria en las que ésta intervenga como socio o aportante.

i) Conceder y gestionar las atenciones sociales del personal y establecer las directrices a las que habrán de ajustarse los Departamentos y Organismos Autónomos cuando, conforme a la normativa vigente, les corresponda su tramitación y resolución.

j) Efectuar el seguimiento y evaluar todo lo relativo a relaciones laborales, en las condiciones de trabajo y en la organización y adecuación de los recursos humanos a un modelo de alta calidad de los servicios públicos.

k) Ejecutar los criterios de común aplicación en materia de seguridad y salud laboral adoptados por la Viceconsejería de Función Pública en el ámbito de la Administración General y sus Organismos Autónomos.

l) Promover una adecuada cultura en materia de seguridad y salud laboral, así como diseñar medidas preventivas y correctoras, e impulsar su ejecución por los órganos competentes, estableciendo criterios de coordinación, si fuera necesario.

m) Gestionar el Servicio de Prevención propio de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus Organismos Autónomos.

n) La tramitación de los expedientes y la propuesta de concesión de las pensiones previstas en la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno.

CAPÍTULO VII
VICECONSEJERÍA DE RÉGIMEN JURÍDICO

***Artículo 23.***– Viceconsejería de Régimen Jurídico.

1.– Corresponden a la Viceconsejería de Régimen Jurídico, además de las funciones que con carácter general le atribuye el artículo 5 del presente Decreto, las siguientes:

a) En cuanto Servicio Jurídico Central es el órgano del Gobierno a quien corresponde la función consultiva y de asesoramiento de la Administración General e Ins-

tituzionalaren kontsulta- eta aholkularitza-lanak egitea, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari ez dagokiona, bai eta administrazio horiek edozein jurisdikzioren aurrean ordezkatzea eta babestea ere.

b) Euskal herri-administrazioen antolaketaren eta prozedura-araubide juridikoaren arloko egitekoak prestatu eta garatzea; azken kasu horretan, Administrazioa arrazionalizatzeko, hobetzeko eta eguneratzeko emandako artezpideetara egokitzea ere.

c) Araubide orokorreko elkarteen, fundazioen eta elkargo profesionalen arloan Euskal Autonomia Erkidegoari dagozkion araubide orokorrari, babesletzari eta erregistroari buruzko egitekoak betetzea.

d) Toki Administrazioaren arloko jardunak ikuskatu, aztertu eta horien gaineko aholkuak ematea.

2.– Honako zuzendaritza hauek Araubide Orokorraren Sailburuordetzaren mende egongo dira:

a) Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritza.

b) Auzibide Zuzendaritza.

3.– Azaroaren 24ko 9/2004 Legean eta haren antolakuntza- eta jarduera-araudian ezarritako moduan, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoa Araubide Juridikoaren Sailburuordetzari atxikitzen zaio, baina haren egitura organikoan sartu gabe, beraren aholkulari-lana autonomia hierarkiko eta funtzional osoarekin burutzen baitu.

Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 6.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, Araubide Juridikoaren Sailburuordetzako titularrak edukiko du aholkularitza-organo goren horren lehendakaritza.

***24. artikulua.***– Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritza.

1.– Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzak, Dekretu honetako 6. artikuluan aipatzen direnez gain, egiteko hauek izango ditu:

a) Sailek eta erakunde autonomoek hala eskatzen dutenean, haien eskumenekoak diren arazoei buruzko irizpenak edo txosten juridikoak lantzea.

b) Beste erakunde instituzional batzuek hala eskatzen dutenean, haientzat interesgarriak izan daitezkeen irizpenak edo txosten juridikoak lantzea.

c) Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarentzat gordeta ez dauden lege-aurreproiektuen eta arau-indarra duten erregelamendu-xedapeneko proiektuen eta Jaurlaritzaren Kontseiluak agintzen dizkion beste gai batzuen legezkotasunaren barne-kontrola egitea.

d) Defentsa jurisdikzionala egiteko ardura duten organoentzako txostenak lantzea eta aholku juridikoak ematea, Zuzendaritza horrek landutako xedapenen aurkako inpugnaziorik aurkeztuz gero.

titucional de la Comunidad Autónoma del País Vasco que no esté reservada a la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi y la representación y defensa de dichas Administraciones ante cualquier jurisdicción.

b) La elaboración y el desarrollo de las funciones en materia de régimen jurídico de la organización y procedimiento de las Administraciones Públicas Vascas, sin perjuicio, en este último caso, de su adecuación las directrices dictadas en orden a la racionalización, mejora y modernización de la Administración.

c) El ejercicio de las funciones relativas al régimen general, protectorado y registro que en materia de Fundaciones, Asociaciones y Colegios Profesionales corresponden a la Comunidad Autónoma de Euskadi.

d) La supervisión, estudio y asesoramiento de las actuaciones en materia de Administración local.

2.– Dependen de la Viceconsejería de Régimen Jurídico las siguientes Direcciones:

a) Dirección de Desarrollo Legislativo y Control Normativo.

b) Dirección de lo Contencioso.

3.– En los términos establecidos por la Ley 9/2004, de 24 de noviembre, y su reglamento de organización y funcionamiento, se adscribe a la Viceconsejería de Régimen Jurídico, sin integrarse en su estructura jerárquica, la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, que ejerce su función consultiva con plena autonomía jerárquica y funcional.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 6.2 de la Ley 9/2004, de 24 de noviembre, de la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, la persona titular de la Viceconsejería de Régimen Jurídico ostentará la presidencia de este órgano superior consultivo.

***Artículo 24.***– Dirección de Desarrollo Legislativo y Control Normativo.

1.– La Dirección de Desarrollo Legislativo y Control Normativo ejercerá, además de las funciones señaladas en el artículo 6 del presente Decreto, las siguientes:

a) Elaborar, a instancia de los Departamentos y Organismos Autónomos dictámenes o informes jurídicos sobre cuestiones de competencia de éstos.

b) Elaborar dictámenes o informes jurídicos, a instancia de otros entes institucionales en materias de su interés.

c) El control interno de legalidad de los Anteproyectos de Ley y de los proyectos de disposiciones reglamentarias de contenido normativo que no estén reservados a la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi y de aquellos otros asuntos que le atribuya el Consejo de Gobierno.

d) La elaboración de informes y el asesoramiento jurídico a los órganos encargados de la defensa jurisdiccional cuando recaiga impugnación sobre disposiciones en cuyo procedimiento de elaboración hubiere intervenido.

e) Herri-administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio-prozedura erkidearen eremuan beharrezko den arau oro prestatzea eta garatzea, bai eta euskal herri-administrazioen egiturapen eta sailkapen instituzionalerako lanabesak eta ereduak prestatzea eta proposatzea ere; hori guztia Herri Administrazio Sailburuordetzaren mendeko organoekin batera, Administrazioaren berrikuntzaren eta kalitate-hobekuntzaren eremuan emandako artezpideetara egokitze aldera.

f) Elkarteen araubide orokorra, eta horretarako sortutako erregistroaz arduratzea, elkarteen lurraldebulegoak koordinatzea, gidatzea eta gainbegiratzea, eta herri-onurako izaera eman zaien elkarteen babesletza.

g) Autonomia Erkidegoaren eskumeneko fundazioen araubide orokorra, eta fundazio horien babesletza eta erregistroa.

h) Elkargo profesionalekin lotutako egiteko instituzional, orokor eta korporatiboak, azaroaren 21eko 18/1997 Legean xedatutakoaren arabera, eta elkargo horiek beren sektore-eremuaren barruan sailekin izan ditzaketen harremanei kalterik egin gabe.

2.– Elkarteen Erroldaren lurralde-bulegoak lurralde historiko bakoitzeko hiriburuetan daude eta Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzaren lurraldezerbitzu deszentralizatuak dira.

3.– Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 6.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzako titularrak edukiko du aholkularitza-organo goren horren lehendakariordetza.

***25. artikulua.***– Auzibide Zuzendaritza.

1.– Auzibide Zuzendaritzak, Dekretu honetako 6. artikuluan aipatzen direnez gain, honako egiteko hauek izango ditu:

a) Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorraren eta Instituzionalaren ordezkaritzako eta defentsako beharrezko aurre-ekintzak egitea, ekintza horiek gidatzea eta koordinatzea.

b) Judizio aurreko txosten, ekimen, errekerimendu eta jarduera egokiak gauzatzea eta Jaurlaritzaren interesak ordezkatzeko eta defenditzeko egitekoak zuzentzea konstituzio maila duen jurisdikzioaren aurrean eta Arbitraje Batzordearen aurrean.

c) Judizio-ekintzak hasarazteari buruz aholkuak ematea, txostenak lantzea eta jardunak koordinatzea.

d) Administrazioaren jarduera zuzentzeko neurriak proposatzea, ahalik eta errekurtso edo erreklamazio gutxien jar daitezen.

e) La elaboración y desarrollo de cuantas normas se precisen en el ámbito del régimen jurídico de las Administraciones Públicas y del procedimiento administrativo común, así como la elaboración y propuesta de instrumentos y modelos de estructuración y clasificación institucional de las Administraciones Públicas Vascas, todo ello en colaboración de los órganos dependientes de la Viceconsejería de Administración Pública en orden a su adecuación a las directrices dictadas en el ámbito de la mejora de calidad e innovación de la Administración.

f) Régimen general de las Asociaciones de competencia de esta Comunidad Autónoma y llevanza del Registro creado a tal efecto, y coordinación, dirección y supervisión de las Oficinas Territoriales de Asociaciones, así como el Protectorado de las Asociaciones declaradas de Utilidad Pública.

g) Régimen general de las fundaciones de competencia de esta Comunidad Autónoma y Protectorado y Registro de las mismas.

h) Ejercicio de las funciones institucionales, generales y corporativas relacionadas con los Colegios Profesionales, de acuerdo con lo dispuesto en la Ley 18/1997, de 21 de noviembre, y sin perjuicio de las relaciones que, respecto a éstos, mantengan los Departamentos en su ámbito sectorial.

2.– Las Oficinas Territoriales del Registro de Asociaciones, ubicadas en cada capital de los Territorios Históricos, se configuran como Servicios Territoriales descentralizados de la Dirección de Desarrollo Legislativo y Control Normativo.

3.– De conformidad con lo dispuesto en el artículo 6.2 de la Ley 9/2004, de 24 de noviembre, de la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, la persona titular de la Dirección de Desarrollo Legislativo y Control Normativo ostentará la vicepresidencia de este órgano superior consultivo.

***Artículo 25.***– Dirección de lo Contencioso.

1.– La Dirección de lo Contencioso ejercerá, además de las funciones señaladas en el artículo 6 del presente Decreto, las siguientes:

a) La realización de los actos previos necesarios y la dirección y coordinación de la representación y defensa de la Administración General e Institucional de la Comunidad Autónoma.

b) La realización de los informes, iniciativas, requerimientos y actuaciones prejudiciales oportunas, así como la dirección de la representación y defensa de los intereses del Gobierno ante la jurisdicción constitucional y la Comisión Arbitral.

c) El asesoramiento, elaboración de informes y coordinación respecto al inicio de acciones judiciales.

d) Proponer las medidas correctoras de la actuación administrativa tendentes a disminuir o prevenir la interposición de recursos o reclamaciones.

e) Epaiak betearazteak, prozesuen gastuetarako dirua biltzeak edo kostuak ordaintzeak sor ditzaketen administrazio-ekintzak koordinatzea.

f) Epaiek antolamendu juridikoaren gain izan dezaketen eragina eta, oro har, judizio-prozeduren ondorioak aztertzea.

g) Zerbitzu Juridiko Nagusikoak ez diren legelariak gaitzea, Euskal Autonomia Erkidegoaren Epaietarako Ordezkotzari eta Aldezpenari buruzko ekainaren 26ko 7/1986 Legearekin bat etorrita, bai eta elkargokide diren abokatuei egotzitakoak ere.

h) Haien jardueraren ondorioak direla kausa, Jaurlaritzako funtzionario eta goi-kargudunen defentsa zibil eta penala bere gain zein kasutan hartu behar duen erabakitzea.

i) Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eskumen diren toki-araubideko gaiak aztertzea, horiei buruzko aholkuak eta irizpena ematea eta ebaztea.

j) Toki-administrazioari buruzko erregistro-tresnak kudeatzea.

k) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak beste administrazioekin edo erakunde eta antolakunde publiko zein pribatuekin sinatutako hitzarmen eta akordioen gordetzaile izatea.

l) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean dauden edo sortzen diren datu-fitxategietatik izaera pertsonala dutenak antolatzea eta gainbegiratzea.

2.– Ordezkapen eta jakinarazpenerako lurralde-bulegoak lurralde historiko bakoitzeko hiriburuetako justizia-jauregietan daude eta Auzibide Zuzendaritzaren lurralde-zerbitzu deszentralizatuak dira.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

***Lehenengoa***.– Ordezkapenak egiteko araubidea.

Saileko sailburuordetza eta zuzendaritzetako titularren postua hutsik badago edo titularra bera falta bada nahiz gaixorik badago, ordezkapenak arau hauei jarraiki egingo dira:

a) Sailburuordetzei egotzitako eskumenak eta eginkizunak sailburuordetza horietako zuzendariek beteko dituzte egoera horrek dirauen bitartean, egiturako hurrenkeraren arabera.

b) Zuzendaritzei egotzitako eskumenak eta eginkizunak sailburuordetza horietako zuzendariek beteko dituzte egoera horrek dirauen bitartean, dagokion egiturako hurrenkeraren arabera, eta, horrela egiterik ez balego, hierarkikoki gainetik dagoen agintariak beteko ditu, hurrengo idatz-zatian adierazten den kasuan izan ezik.

e) La coordinación de los actos administrativos derivados de la ejecución de sentencias, recaudación o pago de costas procesales.

f) El estudio de la incidencia de sentencias sobre el ordenamiento jurídico y, en general, sobre las consecuencias de los procedimientos judiciales.

g) La habilitación de los Letrados no pertenecientes al Servicio Jurídico Central, de conformidad con la Ley 7/1986, de 26 de junio, de Representación y Defensa en Juicio de la Comunidad Autónoma del País Vasco, así como las encomiendas a Abogados colegiados.

h) La decisión de los casos en que proceda asumir la defensa civil y penal de funcionarios y altos cargos del Gobierno por causas derivadas del ejercicio de sus funciones.

i) El estudio, asesoramiento, informe y la resolución de asuntos de competencia de la Administración de la Comunidad Autónoma en materia de régimen local.

j) La gestión de los instrumentos registrales concernientes a la Administración Local.

k) Ser depositario de cuantos convenios y cualesquiera acuerdos se celebren entre la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y otras Administraciones, entes y organizaciones públicas o privadas.

l) La ordenación y supervisión de cuantos ficheros de datos de carácter personal existan o se generen en la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

2.– Las Oficinas Territoriales de representación y notificaciones, ubicadas en los Palacios de Justicia radicados cada capital de los Territorios Históricos, se configuran como Servicios Territoriales descentralizados de la Dirección de lo Contencioso.

DISPOSICIONES ADICIONALES

***Primera***.– Régimen de suplencias.

En los casos de vacante, ausencia o enfermedad de los o de las titulares de las Viceconsejerías y Direcciones del Departamento, las suplencias se realizarán conforme a las siguientes reglas:

a) Las competencias y funciones atribuidas a las Viceconsejerías serán ejercidas, mientras dure tal situación, por los Directores o las Directoras de las mismas, por el mismo orden en que aparecen en su respectiva estructura.

b) Las competencias y funciones atribuidas a las Direcciones serán ejercidas, mientras dure tal situación, por los demás Directores o Directoras de la misma Viceconsejería, por el mismo orden en que aparecen en su respectiva estructura, y, de no ser posible, por el superior jerárquico inmediato, salvo lo dispuesto en el apartado siguiente.

c) Zerbitzu Zuzendaritzari egotzitako eskumenak eta eginkizunak Justizia eta Herri Administrazioko sailburuaren Kabineteko zuzendariak beteko ditu.

d) Aurreko arauak nahikoak ez balira, goragoko hurrengo mailako administrazio-organoak izendatzen duenak baliatuko du administrazio-organoko eskumena.

***Bigarrena***.– Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 13.2 artikuluan aurreikusitako bermea betetzeko, eta batzorde horren antolamenduaren eta funtzionamenduaren Erregelamendua onartzen duen irailaren 12ko 167/2006 Dekretuaren xedapen gehigarrian xedatutakoarekin bat etorriz, Zerbitzu Zuzendaritzak Lege horren 14. artikuluak hainbat arlotan (langileak, kontratazioa, bitarteko material eta informatikoen horniketa, eta kudeaketa ekonomiko-aurrekontukoa) Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari egozten dizkion eskumenez baliatzeko administrazio-laguntza- eta -babesa emango dizkio aholku-batzorde horri, eta kasu horietan Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoko lehendakariaren mendekotasun funtzionalaren pean jardungo du.

***Hirugarrena***.– Justizia eta Herri Administrazio Saileko kontratazio-organoak, era berean, eskudunak izango dira, baldintza beretan, obrak gauzatzeko eta zerbitzuak emateko kudeaketa-gomendiorako, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen 4.1.n) eta 24.6 artikuluetan aurreikusitako baldintzetan.

***Laugarrena***.– Beste arau batzuetan xedatzen dena salbu, kontratazio-organoei egokituko zaie dena delako gastuen baimenerako eskumena.

***Bosgarrena***.– 1.– Indarrean dauden arauek justiziaren eta herri-administrazioaren arloan Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailari edo Ogasun eta Herri Administrazio Sailari egiten dizkieten aipamenak Justizia eta Herri Administrazio Sailari egindakotzat joko dira, hain zuzen ere, Lehendakariaren Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzeari eta jardun-arloak finkatzeari buruzko maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuan eta honako Dekretu honetan Sail honi egotzitako eskumenei dagokienean.

2.– Indarrean dagoen zernahi arau edo xedapenetan Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritzari, Giza Baliabideen Zuzendaritzari, Zigor Betearazpenaren Zuzendaritzari eta Giza Eskubideen Zuzendaritzari egiten zaizkien erreferentziak, hurrenez hurren, Justizia Administrazioa Eraberritzeko Zuzendaritzari, Bulego Judizial eta Fiskalaren Zuzendaritzari, Justizia Zuzendaritzari eta Giza Eskubideen Zuzendaritzari egindakotzat ulertuko dira.

c) Las competencias y funciones atribuidas a la Dirección de Servicios serán ejercidas por el Director o la Directora del Gabinete de la Consejera o Consejero de Justicia y Administración Pública.

d) Cuando las anteriores reglas no bastaren, la competencia del órgano administrativo será ejercida por quien designe el órgano administrativo inmediato de quien dependa.

***Segunda***.– En cumplimiento de la garantía prevista en el artículo 13.2 de la Ley 9/2004, de 24 de noviembre, de la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, y de conformidad con lo dispuesto en la disposición adicional del Decreto 167/2006, de 12 de septiembre, por el que se aprueba el Reglamento de organización y funcionamiento de la citada Comisión, la Dirección de Servicios prestará a la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi el auxilio y soporte administrativo que ésta le solicite para el ejercicio de las competencias que el artículo 14 de la citada Ley le atribuye en materia de personal, contratación, provisión de medios materiales e informáticos y gestión económico-presupuestaria, actuando en esos casos bajo la dependencia funcional del Presidente de la Comisión Jurídica Asesora.

***Tercera***.– Los órganos de contratación del Departamento de Justicia y Administración Pública serán también competentes, en las mismas condiciones, para la encomienda de gestión de ejecución de obras y prestación de servicios en los términos previstos en los artículos 4.1.n) y 24.6 de la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público.

***Cuarta***.– Salvo lo que se disponga en otras normas, a los órganos de contratación les corresponderá la competencia para la autorización de los gastos correspondientes.

***Quinta***.– 1.– Las alusiones que la normativa vigente en materia de justicia y en materia de administración pública realiza al Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social o al Departamento de Hacienda y Administración Pública se entenderán realizadas al Departamento de Justicia y Administración Pública en lo que se refiera a las competencias atribuidas a este Departamento en el Decreto 4/2009, de 8 de mayo, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, y en el presente Decreto.

2.– Las referencias contenidas en cualesquiera normas o disposiciones vigentes referidas a las direcciones de Relaciones con la Administración de Justicia, de Recursos Humanos, de Ejecución Penal y de Derechos Humanos se entenderán efectuadas, respectivamente a las direcciones de Modernización de la Administración de Justicia, de Oficina Judicial y Fiscal, de Justicia y de Derechos Humanos.

3.– Indarrean dagoen zernahi arau edo xedapenetan Administrazioa Eraberritzeko Bulegoaren Zuzendaritzari egiten zaizkion erreferentziak, berriz, Berrikuntzaren eta Administrazio Elektronikoaren Zuzendaritzari egindakotzat ulertuko dira, salbu eta Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioak Interneten duen presentziaren ereduari buruzko ekainaren 8ko 108/2004 Dekretuan egiten den erreferentzia, hori aurrerantzean Herritarrei Arreta Emateko Zuzendaritzari egindakotzat ulertuko baita.

4.– Indarrean dagoen zernahi arau edo xedapenetan Administrazio Elektronikorako eta Herritarrei Arreta emateko Zuzendaritzari egiten zaizkion erreferentziak, berriz, Berrikuntzaren eta Administrazio Elektronikoaren Zuzendaritzari egindakotzat ulertuko dira.

5.– Honako dekretu hauetan Azterlanen eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritzari egiten zaizkion erreferentziak, azkenik, aurrerantzean Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzari egindakotzat ulertuko dira: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 100/2007 Dekretua; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretua; Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Errolda Nagusiaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 29ko 145/2008, eta Onura Publikoko Elkarteei eta beren Babesletzari buruzko Erregelamendua onartzen duen uztailaren 29ko 146/2008 Dekretua.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

***Lehenengoa***.– Harik eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Kontratazio Araubideari buruzko ekainaren 5eko 136/1996 Dekretua aldatzen ez den arte, Kontratazio Batzorde Nagusiak kontratazio-mahaiaren eginkizunak gauzatzen jarraituko du, 9.1 artikuluan jasotako kontratazio-espedienteei eta homologaziorako lehiaketei dagokienez, bai eta 18. artikuluan aipatutako kontratuei buruz ere.

***Bigarrena***.– Izapidetzen ari diren espedienteak, Dekretu honetan ezarri diren organoek izapidetuko eta ebatziko dituzte, kasuan kasuko gaiaren arabera.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratzen dira lehendakariaren otsailaren 28ko 2/2006 Dekretua, Jaurlaritzaren Lehendakariordetzaren egitura organikoa onartzen duena, otsailaren 28ko Dekretua, Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren egitura eta egitekoak ezartzen dituena, eta urriaren 18ko 315/2005 Dekretua, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren organoen eta egitekoen egitura finkatzen duena, bai eta maila berekoa edo txikiagokoa izanik honako Dekretu honetan ezarritakoaren aurka dagoen beste edozein xedapen ere.

3.– Las referencias contenidas en cualesquiera normas o disposiciones vigentes referidas a las Dirección de la Oficina para la Modernización Administrativa se entenderán efectuadas a la Dirección de Innovación y Administración Electrónica, salvo la efectuada en el Decreto 108/2004, de 8 de junio, del modelo de presencia de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi en Internet, que se entenderá hecha en lo sucesivo a la Dirección de Atención Ciudadana.

4.– Las referencias contenidas en cualesquiera normas o disposiciones vigentes a la Dirección de Administración Electrónica y Atención a la Ciudadanía se entenderán efectuadas en lo sucesivo a la Dirección de Innovación y Administración Electrónica.

5.– Las referencias contenidas en los Decretos 100/2007, de 19 de junio, por el que se aprueba el Reglamento del Protectorado de Fundaciones del País Vasco; 101/2007, de 19 de junio, por el que se aprueba el reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco; 145/2008, de 29 de julio, por el que se aprueba el Reglamento del Registro General de Asociaciones del País Vasco, y 146/2008, de 29 de julio, por el que se aprueba el Reglamento del sobre las Asociaciones de Utilidad Pública y su Protectorado, al Director o a la Directora de Estudios y Régimen Jurídico se entenderán en lo sucesivo efectuadas al Director o Directora de Desarrollo Legislativo y Control Normativo.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

***Primera***.– En tanto no se modifique el Decreto 136/1996, de 5 de junio, sobre régimen de la contratación de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, la Comisión Central de Contratación seguirá realizando las funciones de mesa de contratación respecto de los expedientes de contratación y concursos para la homologación contemplados en su artículo 9.1, así como los contratos señalados en su artículo 18.

***Segunda***.– Los expedientes que se encuentren en tramitación se tramitarán y resolverán por los órganos que se establecen en el presente Decreto, en función de la materia de que se trate.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Quedan derogados los Decretos 2/2006, de 28 de febrero, del Lehendakari, por el que se aprueba la estructura orgánica de la Vicepresidencia del Gobierno, 42/2006, de 28 de febrero, por el que se establece la estructura y funciones del Departamento de Hacienda y Administración Pública, y 315/2005, de 18 de octubre, por el que se establece la Estructura Orgánica y Funcional del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social, en las áreas organizativas contempladas en el presente Decreto, así como cualquier otra disposición de igual o inferior rango que se oponga a lo establecido en el presente Decreto.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa***.– Araudi bidezko garapena.

Baimena ematen zaio Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari Dekretu hau garatzeko eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapenak emateko eta zuzendaritzaren mailara heltzen ez diren unitate organikoak bateratu, sortu edo desagerrarazteko, baldin eta horrek gastuak areagotzen ez baditu.

***Bigarrena***.– Indarrean jartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Donostia-San Sebastiánen, 2009ko abuztuaren 28an.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera***.– Desarrollo reglamentario.

Se autoriza a la Consejera o Consejero de Justicia y Administración Pública para dictar cuantas disposiciones fuesen necesarias para el desarrollo y aplicación de este Decreto, así como para agrupar, crear o suprimir unidades orgánicas de rango inferior a Dirección, siempre que ello no suponga un incremento de gasto.

***Segunda***.– Entrada en vigor.

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Donostia-San Sebastián, a 28 de agosto de 2009.

El Lehendakari,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

La Consejera de Justicia y Administración Pública,
IDOIA MENDIA CUEVA.